



Bizkaitarrei Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



ZER ALDIZKARIA

1977-2017
40
urte

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN ZER ALDIZKARIAK 40 URTE BETETZEAK

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.017´ko urtean Bagilla´ren 14ª´n



Aurkezpena.

Enaz ZER aldizkariaren 40 urte betetzeko lan onen mamian sartzen asiko, Olazar´tar Martin, eta beragaz Euskalerrian, ainbat berelakoari zor jakozenak aipatu barik.

Kardaberaz, Euskerazaleak Alkartea, Euskera-zaintza, Kili-Kili ta ainbat Euskerazko erakundeen sorpenak irasi ebazan, euren ZER, Euskerazaintza, Arranondo, ta umien Kili-Kili liburutxu ta aldizkari, Egutegi-Takoagaz, Euskalerriko Euskerea leen, ta Bizkaierazko Euskerearen Nortasunezko bizitza indartuz, etorkizunezko denboran gaur arte iraun dagian, Euskerazko idaz lanak, Euskalerriko lau aizetara zabalduz.

Euskerazaintzaren Debako batzarretik urten genduan, Aita Santi Onaindia ilda, San Sebastian´tar Jose Mari (Latxaga), Zubikarai´tar Augustin, Zubiri´tar Iñaki, Arrinda´tar Anes, Latiegi´tar Bizente, Solozabal´tar Paulin, Arzelus´tar Amale, Murua´tar Jose Mari eta beste batzar-kideen artean, Olazar´tar Martin izan zan bigarren alegindu zana, ni Euskerazko idaz lanekin arduratu nendin.

Eta Euskeraz enekiala esan ondoren, berak: “Ori konponduko dogu”. Zuk idatzi bai, eta nik zuzenduta ZER Euskerazaleen aldizkarian argitaratuko dogu.


Alango gizon emakumeak izan ziran arek, euren erri-gizon emakume, apaiz-lekaideen ekanduzko erlijioaren lanetatik, Euskalerrria, bere Euskerazko Nortasunean Aberritzeko, buru belarri sartuta bizi ziralako.

Eta ainbat milla esker zuei emonagaz, guk artzen dogu oraingo txanda, Euskalerrria gure Euskerearen Nortasunagaz, len bait-len, demokraziaren erri arteko askatasunean ezartzeko.

Sarrera.

Nire esku artean daukat 1.977ko urtearen Uztailan argitaratuko ZER´en leenengo aldizkaria.

Bere leenengo orri aldeko argazkian, amona zar edo adintsu bat, kaikuzko ori-urdiñ-baltzezko laukiekaz margoztutako jakeagaz, jantzitako umetxo ondoan daukala, eta ZER aldizkariaren leen orri orren izen burua “LEN eta GERO”ko itzakaz idatzita dagoena.



Joan eta etorkizunezko denborak dirala erakusten dausku, ZER aldizkariaren leenengo orriaren argazki orrek, eta benetan diñotsuet, obeto ezin dirala aldizkari baten aurkeztu, leenengo Euskerazaleen Alkartekoak, lan egiteko eukezan ametsezko erabagiak.

ZER aldizkaria.

Leenengo barruko orrian, agurtu egiten da bez Bazkide guztiak, berba auek esanda:

EUSKERAZALEAK asko gara, baiña alkarren barri gitxi daukagu, eta orregaitik uste izaten dogu sarritan, ezer ez dogula egiten.

* * *

Gaurtik aurrera ba, badaukagu alkarregaz artu-emonak izateko bide bat. Gure ZER. Illero Artuko dogu guztiak.

* * *

Orrialde au, azalaren atzekoa, geutzat bakarrik izando da, besteak, gutzat eta guztientzat.

* * *

Eta zer irakurriko dogu, edo idatziko dogu, gure ZER onetan ?.

Erriko Kultura eta jakintza; Idazlerik ospetsuenak, gizandiak (heroes), alkarrizketak, gaurko arazoak, baserri ta arrantzaleenak, aberri-gaiak, bertsoak, barriak...

* * *

Ez da naikoa gero, ZER artzea, irakurri egin bear da.

Eta gura dozuena idatzi be bai. Pozik artuko doguz zuen lanak.

Aberastu ta osotuko al da orrelan gure errijakintzea.

Izan beite dana, Erriaren onerako.

ZER – Idazkolakoak.

BA DIARDOGU.

Idazlan edo dana dalako onen EUSKERAZALEAK izenburua eta euskera-zalea izatea, gauza bi ta ezberdiñak dira.

“Euskerazaleak” euskereari eutsi, euskerea irakatsi, mamitu, indar-barritzeko-alkartea dogu.

Urruneko illuna ikusten eben gizon buru-argiak sortea, eta Bizkaian zearko bazkideen esku zabalez bizigarritua.

* * *

Bazkun onen etxea KIRIKIÑO euskal-gaiezko idaztegitik, San Bizentéren eleizatik, Erri-irradi eta Arana Goiri-tarren sorlekutik beso luzetu batean dago, Abando'n, Kolon de Larreategi kalean.

* * *

Gabon-ondorengo ikastaroan bosteun eta geiago ikaslez plin-plin bete zan ok egiteraiño.

Gaur egun, gitxitu egin dira, baiña dabil-tzanak, norberaren aberrian arrotz izateaz lotsaturik eta udaldian Lekeitio'n, Arratia'n, Orozko'n, Elorrio'n edo beste erriren batzutan erritarrakaz ulertu al izateko egarriz, Bizkai-euskerea ikasten su ta gar diardue.



Aita Santi Onaindia

* * *

Au irakurriko dauan bat edo batek bere kolkoari itaun dagikio: “Baiña Ondarrabi'n, Oiar-tzun'en, Zumarraga'n, Lapurdi'n, eta Baztan-darren Biltzar inguru-minguruan izango ete dira gero gai, ezer ulertu eta ulertu arazoteko ?.


Bidea, ibiliz egiten da.

Angoakaz ulertu eta norberaren urrengoan artean tululu izatea be, ez dogu biderik egokien-tzat.

Ikasi dagigun ba, etxean ibiltan, eta urren-gorik urrengora Atturri ibairaiño bidea egiten. Bizkaieroa ondo dakienak, edozein euskalkiren % 80^a daki.

Aurrera ta biotz on!

ANTON^{ek}



Lenengo orri aldean Euskerazaleak Alkartearen arduradunak **“ZER”** garala esaten dauskuenak, aldizkaria aurkezten, onelako txatalak argitzen dabe: Aldizkari barri bat dala, Bizkaieraz idatzita; Bakean, iñoren aurka ez doana; Zelako **“Gaiak”** erabiliko dabezan; Eta Euskalerrriaren alde izango dala egiten dauan lan guztia.

Bigarren orri aldean **“GAURKO ARAZOEN”** elburuagaz, **ESKUBIDE**´en gaiakiaz asi ta atal onetan bananduta: Autormena; Zapalketaren aurka; Nortasuna ta osotasuna; Bere buruaren jabetasuna; Auteskundetako atalagaz amaituta **LETONAK** idazte dauana.

Irugarren orriari **“KONTU KONTARI”** elburuagaz. **IÑIGO** ta **MARI**´ren ipuñezko lau kontu: Aitarenik ez!; Txakur-asarreal Aitaren!; Toledo´ra; eta Anbotoko Marigaz **ESTONBA**´tar **MANUELE**´k amaitzen dauanagaz.

Laugarren orriari **“BERBA”**´ren elburuagaz **JAKINTZA AGURTZEN** atal onekaz: Bizkaiera Zaleok; Aita Mokoroa Euskalki-Zalea; Bere Lana; Orain Amaitzen; Eskerak eta Omenaldi bategaz amaitzen dauana **ARENAZA**´tar **JOSU**´k.

Bostgarren orriari, **“BARRIAK”**´en izen buruagaz: Euskerea; Gure Athletic; Politikea; eta Arratia´tik laugarren atal onegaz amaitzen dauana **LANDAJUELA**´tar **Andonik**.


Seigarren orriari, **“BARRIAK”**´en izen buru onekin, **LETONAK** idazten dauazan: Bilbo´ko barriak; Eta Zeuria **Deustu**´n.

Zazpigarren orrialdean, **“GURE ABERRIA”**´ren elburuarekaz **ABERRI MIN-DUA** lau ataletan bananduta: Txikien artean; Saminaldietan; Errudunak; Eta Goratzailleak, idazten dauazanak **ARREGI**´tar **JOSU**´k.

Zortzigarren orrialdean: **“BERTSOETAKO”** eta **ARRATIARRAK URKIOLARA**´ko izen buruagaz, **BASARRI**´ren argazki ederra daukala, **PUJANA**´tar **BASILIO**´k aurkezten dauskuzan, bertso oneik: **MEZEAREN ASIERAN**; **ESKEINTZA ALDIAN**; eta **MEZA AZKENEAN**.

Bederatziko orri aldean, **“BASERRIA”** eta **BEDAR LANA**´ren izen buruagaz. **Olazar**´tar **Martine**´k, aurkezten dauskuzan: Basoak, soloak eta abereak; Abereen janaria; eta bedar sikuagaz. Euskal itxura andiko baserritar baten argazkiagaz, ira⁽¹⁾ ebagiten.

Amargarreneko orrialdean, **“IDAZLEAK”** eta **SORNE UNTZUETAREN** izen buruagaz, **AITA SANTI**



(1) Ira = helecho.


ONAINDIA karmeldarrak, aurkezten dauskun Sorne Untzuetaren idazle bizitza atal oneitan: Euskal Idazle; Olerkari; eta zelako idazlea izan zan gure Sorne, argi ta errez irakurteko adi-erazita.

Amaikagarrenengo orri aldian, **“GIZANDIAK”** eta URDANETA´ren izen buruagaz, URKIOLA´k aurkezte dauskun Urdanetaren bizitza, atal oneitan: Sorkaldeko giltzaren billa Elkano´gaz; Bakarrik, Molukas´en galdua; Lisboa´ra; Mexiko´n errejidore; Praille Agustin´dar eta meza barria; ata Barriro Sorkaldeko giltzaren billa: bost itsasontzi ta lareun gizon, Lagazpi´gaz.

Amabi orri aldian, **“LIBURUAK”** eta IPUI ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK´en izen buruagaz, ZARATE´tar MIKEL´ek aurkezten dauskuzan: Euskaldunak ipuinlari; Alegiak; Alegi Euskaldunak; Mikel Zarate´ren Alegiak; eta Norentzako Liburua ?´gaz amaituten dauana, edurtutako mendi eder baten argazkiagaz.



Mikel Zarate



Eta azkeneko amairugarren barruko orri aldean, AGIRRE ta LEKUBE´tar JOSE ANTONIO´n liburuaren **“ENTRE LA LIBERTAD Y LA REVOLUCION 1.930-1935”** saleros-teko aurkezpen ederra, bere irudiaren argazkiagaz.

Asko eta, gure Euskalerrriak euki dabean emakume-gizon aundienak aldatu dira gure ZER aldizkarietatik, euren jakiña eta aolku ederranakaz euskal gizar-teari, atsegin-sari lez eskañita berrogei urte onetan, adibidez goian aipatu dodazan gaiñetik:

Aita Barandiaran, Aita Lekuona, Aita Santi Onaindia, Zubikarai´tar Augustin, Aita Lino Akesolo, Manterola´tar Gabirel, Bilbao´tar Jon Erramun, Egileor´tar Jon, Murua´tar Joxe Mari, Zubiri´tar Iñaki, Arzelus´tar Amale, San Sebastián´tar Jose Mari (Latzaga), Gallastegi´tar Kauldi, Txomin Agirre, Egiluze, Estonba´tar Manuel, Zangroniz, Arrinda´tar Anes, Olabarri´tar M., Olazar´tar Martin (Gamiz), Aita Mar-

Augustin Zubikarai

tzetel, Urkiola, Atxutegi´tar Bitor, Eguzkizaga´tar Julene, Goikotxea´tar Iñaki, Legarreta´tar Josu, Solozabal´tar Paulin, Dañoibeitia´tar Kepa, Unzueta´tar Sorne (Utarsus), A´TAR BI, Zabala´tar Endika, Peña´tar Xabier, Azpeitia´tar Julene, Kerexeta´tar Jaime, Azpeitia´tar Gotzon, Azpeitia´tar Julene, Agirre´tar Jon Joseba, Muniategi´tar Sabin, Gallastegi´tar Kennedy, Lertibe, Ibarra´tar Bernardo, Olabarri´tar Markos, Itarbe, Eguzkitza´tar Miren, Zar-Gazte´k...

Eta 1977-1.979 urte bitarteko leen ogeitazazpi aldizkari onetatik agertzen diran onen izenetatik, nik lenengo ogeitazazpi aldizkari onetan ez direzan iru izen sartu arren Euskalerriko beste lurraldeetatik be idazten ebelako da, 2.017ko urtean Bagillaren 438ko zenbakirarte agertuko direzan, idazle ainbat dira, eta geiegi direzelako idazlan onetan sartzeko, orrela itziko dodaz

1.977ko urtean Euskerazaleak, euren arteko Olazar ta Uribe´tar Martin apai-za arduratu eben ZER aldizkari onen


zeregiñak aurrera eroateko, eta bera izanda 1.977ko urtearen leenengo zenbakitik, 2.008ko urteaiño bera il zan arte, ardura guztiagaz eroan dauana gure asko maite dogun, Bizkaierazko ZER aldizkari eder au.

2.000ko urtean Zubiri´tar Iñaki lendakari zala eta gaiso egoalako, Olazar´tar Martin´eri aldatu geuntson Euskerazaleak Alkartearen lendakaritza, aurrerantzean be, bera arduratuta gure ZER aldizkariarekin, eta Lendakari ordezeko lez Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio izendatu gendun.

2.008ko urtean il jakun gure Olazar ta Uribe´tar Martin, eta Barroeta´tar Klaudio arduratu gendun Euskerazaleak Alkartearen lendakaritasunagaz, eta bera da orain ZER aldizkariaren arduraduna 95urte euki arren.

Berak zuzentzen dauz gure idazlan guztiak, eta itxaropen aundiak daukaguz, ZER gure aldizkari maite onen bizitza, luzea izango dala.

2.017ko urtean Lorailaren 15ean ospatu gendun Karlton arrotzetxean Euskerazaleak elkartearen 50. urteurrena eta orren barruan, ZER aldizkari maite onen 40 urte beteteak, maikide gure Klaudio klaretarra Euskerazalearen Lendakari lez, eta bere alboetan Aldundiaren ordezeko lez Jendekuntz (Kultura)

Aita Barandiaran

Martin Olazar Uribe

ta Euskerearen Foru diputadua Bilbao´tar Lorea, eta Bilbao´ko Udalaren ordego lez, Udaleko Alkate Aburto´tar Juan Mari´gaz.

Euskerazaleak elkartearen 50. urteurrenean ospakunde ederra egin gendun, eta orren barruan, ZER aldizkariagaz, aurreko Euskerazale batzarkideak eta gaurkoak gogoratu genduzen, bertan oraindiño bizi-rik eukinda Zugaza´tar Leopoldo, Unzueta´tar Mitxel, Manterola´tar Ander bezalakoak, eta uste dot, Ander´ek asko gogoratuko zala gure aztu ezinezko Olazar ta Uribe´tar Martinegaz.

Zorion aundiak ba Euskalerrinari, ta ZER aldizkari maiteari, alako alaba-sumeak daukazelako, euren egizko ta demokraziaren Nortasunezko tresneriekin, Europa onetan oraindiño gaur be, geratzen diran kolonizaziozko zapaltzaille oiñetatik askatze-ko, bere Euskal Nortasuna ez dagian aienatu.



www.euskerazaleak.biz

**1.200.000
BISITARI**


Erreforma Protestantea: 500 urte


Angel Larrea Beobide

Erreforma Protestantea Aro Modernoaren asieran jasotako aldaketa garrantzitsua izan zan. Aita Santuaren kontrola Eleizako ierarkian, diru-sarreretan eta kristinauen mentalidadean apurtu zan erlijino-erreforma onegaz Europako Mendebaldean eta Iparraldean. Erreformaren aurretik be egon ziran mobimendu kritikoak, Eleizearen funtzionamentuaren eta Aita Santuaren aurka. Zeintzuk izan ziran? Erdi Aroko azken gizaldietan ezinegon erlijiosoa gero eta andiagoa zan. Eleiza Katolikoak, eleiza bakarra Europako arlo andi batean beintzat, musulmanak bota ebezanetik, akats ugari zituala nabarmena zan. Aurre egin bearra egoan arazo orreen lekukoak ziran XII. gizaldetik aurrera sortutako eresiak, zeinda kataroen mobimentuaren moduan; edo Eleiza Katolikoaren barruko mobimendu barriak: esate baterako, fraile frantziskotarrak. Era berean, XIV. gizaldiko “Avignongo Zisma”k Eleiza Katolikoaren prestigioa guztiz ondatu eban. XV. mende edo gizaldiaren asieran iru Aita Santu be egon ziralako aldi berean. Momentu areetan Eleizea barriztuteko deiak altzau ziran alde guztietatik: Thomas Moorek edo Morok eta Erasmus Rotterdamekoak, adibidez, euren prestigioa erabili eben elburu orretarako, baina alperrik izan zan.

Krisi egoera orrek baina 1517ko urtean eztanda egin eban, **Martin Luther** fraile germaniarrak Wittemberg erriko eleizean bere 95 tesiak ipini zituanean. Segiduan, Europa osoan Erromako Eleiza erreformatuteko jarrera zabaldu eban. Asieran, Lutherrek ez eban Erromatar Eleizatik aldendu gura, baina onen erantzuna ikusita 1520an Luther zigortu ebanean, Erromako Eleizearekiko arremanak eten eta, orduko Alemanian, bizitza erlijiosoaren **Erreforma Orokorrari** ekin eutson. Lutherren planteamentuak onako puntu oneetan laburbilduko doguz:

- 1) Erromako Aita Santuari ukatu egiten eutson ezelango nagusitasunik, beste sinistadun guztiakaz parekatuz.
- 2) Eleizkizunak erritarrentzat urbilagokoak izan bear eben, sinplifikatu egin bear ziran, latina itxiz eta erriko izkuntza erabiliz (Biblia alemanez argitara emon eban Lutherrek).
- 3) Eleizak induljentziak saltzea salatu eban, ari-mearen salbazinoa ezin dalako diruz erosi.
- 4) Purgatorioaren kontzeptua baztertu egin eban.
- 5) Ama Birjinaren, Santuen eta erlikien gurtza kendu ebazan.
- 6) Meza Katolikoaren kontzeptua kendu, eta Bibliaren interpretazio pertsonala azpimarratu eban.
- 7) Eleizako pertsonen bizimodua goitik beera aldatu gura eban.
- 8) Salbamera edo Salbazinoa sinesmenean oinarrituten zan, ez ekintzetan. Orretarako, ezinbestekoa zan Jainkoaren Itza ezagututea (orrexegaitik itzuli eban Biblia) eta Sakramentuak ez ziran ezinbestekoak; ain zuzen be, sakramentuen kopurua murriztu eban, zazpitik bira: Bateoa eta Eukaristia.

Idea orreek oso arin zabaldu ziran Europan barena: an eta emen Eleizea aldatu gura eben proposamen asko agertu ziran; ezagunenak Suitzan Johannes Kalbinusek (kalbinismoa deitua) eta Ingalaterran Enrike VIII.ak sortutakoak (anglikanismoa) ziran. Erreformaren aldeko printze, agintari eta predikadore guztiak, asieran, Lutherri jarraitu



outsien, baina laster bakotxa bere bidetik abiatu zan eta, kasu askotan, Lutherren tesien aurka. Egoera benetan naastua egin zan, eta Europako kristinau guztien batasuna berreskuratuteko saio edo aaleginak egin ziran. Izan be, adibide nagusietako bat Karlos V.a Enperadorearena izan zan. Aren asmo guztiak utsean gelditu ziran baina, 1555ean Augsburg uriko Dieta edo Batzarrean. Bertan Europa kristinaua zatituta gelditu zan, “eius regio, eius religio” formulearen arabera; au da, printzearen erlijinoa bere erresuma edo erreinuko biztanleen erlijinoa izango zan aurrerantzean.

Erreforma Protestantea Euskal Errian

Borroka erlijiosoak Euskal Errian izandako eraginean alde andiak dagoz lurralde batetik bestera. Egoaldean, Espainiako erregeak, Erromako Eleizearen zerbitzari nagusi bihurturik, oso gogor zigortu eben ortodoxia erlijiosotik ateraten zan guztia. Iparraldean, barriz, egoera oso bestelakoa zan. XVI. mendearen erdialdean, Nafarroako Erregina, Joana Albret II.a, protestante egin zan eta alaxe biurtu eban Nafarroako erreinua be. Bide orretan, Joanes Leizarragari, protestantismoaren ildotik, Testamentu Barria euskeratutea eskatu eutson, latina aituten ez eban jendeari erlijinoa urbiduteko asmotan. Ainbat noble ez ziran protestantismoaren aldeko, eta erabagi aregaz gatazkak sortu zituan arren, egoerea ez zan aldatu Nafarroako Enrike III.a 1589an Frantziako Enrike IV.a errege biurtu arte. Protestantismoaren aldeko aldarrikapenak sortu zituan arazoak luzeagoak ez egiteko, Nafarroako Erregea eta, era berean, Frantziako Errege barria, Enrike IV.a, urte aretan katoliko biurtu zan.

Eleiza Kristinau eta Protestantei buruzko analisi laburra

Azken amarkadetan eta, batez be, azken urteotan esan lei urbilago dagozala eleiza kristinauak Europan. Eleiza Luteranoan, protestanteen artean leena sortzen, 80 milioi partaide inguru dira munduan, geienak

Europako Erdialdetik eta Iparraldetik sakabanatuta. Eleiza luterano bat bisitatu ezker, zera ikusiko dogu: antzekotasuna dauela Eleiza katoliko bategaz, irudietan eta ornamendatuzinoan esate baterako. Ori ez da jazoten inondik inora, adibidez, eleiza kalbinistetan. Iaz, Frantzisko Aita Santua Suediara joan zan, eta ango Eleiza Luteranoko agintariakaz (suediar sinesleen artean, geiengoak luteranismoa jarraituten dau) egon zan ofizio erlijioso egiten eta konpartiduten. Zalantza barik, sinbolismo andiko ekintza izan zan.

Betidanik esan da eleiza protestanteen artean, Eleiza Anglikanoa dala urbilen dagoana Eleiza Katolikotik. Gaur egungo gizarte aldaketak dirala-eta, Eleiza Anglikanoan polemika egon da andren parte-artzeagaz, eleizgizonen modura, ofizio erlijioso eta mezak emoteko orduan. Leia bizia izan da sekto-re ezbardinen artean, kontserbadore eta erreformisten artean ain zuzen be, anglikano kontserbadore batzuk katolikoengana urbiduz. Etorkizun urbilean, beste erronka bati egin bearko deusie aurre: Ingalaterrako urrengo Erregea Eleiza Anglikanoaren burua be izango ete da, orain arte izan dan moduan?

Nabaria da, beste aldetik, Eleiza protestanteen presentzia tradizionalki erlijino katolikoa nagusi izan dan Egoamerikako eta Ertamerikako ainbat eta ainbat nazinoetan, gero eta andiagoa dalako; batez be, Amerikako Estatu Batuetatik zabaldu diran eleiza protestanteak (ebanjelikoak); Brasilen, esaterako, oso aktiboak dira.

Amaituteko, ondorio modura, zera esan geinke:

- Edestian ikasten dan Aro Modernoa ezin da ulertu Erreforma Protestantearen eragina ezagutu barik. Aro Modernoa Europako Kontinentean sortu zan, neurri batean, Erreformari esker.
- Gaur egun, 2017an, 500 urte pasau dirala Erreforma Protestantea sortu zanetik, eleiza kristinauak jarraituten dabe zatituta; arlo sozialean, ganera, sarri zalantzan jarriak dira, gizartea gero eta laikoagoa dalako.
- Estatu Batuetan baina, doktrina kristinau zorrotzak poteretsu ikusten dira, bertako kultura protestantearen barruan postura kontserbadore edo kontserbadurismoara jo edo abiatu diralako; euren eragina kontuan artzekoa da politikan (eskuma aldeko ideologia daben talde muturrekoak), komunikabideetan (telebistako predikadoreak) edo ezkuntzan arloan (“krea-zionismo” eskolakoak). Datozen urteei begira, beste fenomeno oni be begiratu bearko deusagu: analista iparramerikar batzuk izendatuten daben “zibilizazioen gatazka”, au da, musulman erradikalak edo fundamentalistak versus kristinauak eta juduak.

Oarra: Artikulu au 2016ko Kultur Astean nik neuk emondako berbaldi baten gaia da.

Gernikaren erreketa oroitzuz

- 1.- Urtea, milla bederatzireun
da ogeita amazspi,
apirillaren ogeita seia
Gernikan peria noski;
da gertakizun negargarriaz
esan nai nituzke itz bi,
ezin baita aztu larogei urte
joan diran arren gerozti.
- 2.- Arratsaldeko lau ta erdiak
egazkin otsa zan entzun,
ondorenean mordo aundi bat
bonba lerketaz oiartzun;
Gernika dana erre-kiskaltzen
bazan milla estuasun.
erru gabeko pertsona orangok
azken arnasa eman zun.
- 3.- Eraso bildurgarri orrek txit
iraun zuan lau ordu,
millaka kristau negar-antsika
berdin ainbeste ganadu;
azio ori egin zuana
etzan portatu ondradu, inpernurik
baldin bada beintzat
arentzat izan bear du.
- 4.- Kondor izeneko konpañia zan
da gaiñera alemana,
Gernika erre ta auts biurtuz
bere errira joan zana;
zutikan zegon erri ederra
or gelditu zan etzana,
Frankoren asarrea izan zan
ori agindu zuana.
- 5.- Pake-pakean zegon erria
peri bat bitartekoa,
eraso bildurgarria etorri
gaiñera bat-batekoa;
gerra guztiak dirade txarrak
baiña anai-artekoa?
Illabete batzutako zala
eta iru urtekoa!
- 6.- Erri bat orrela kiskaldut eta
etzan azio motela,
Frankotarrak ikusiz mundua
kontra jarri zitzaiela;
ondorenean erten ziraden
gezurra zeriotea:
gure Gernika zoragarria
gorriak erre zutela.



7.- Ordu gutxitan ondatu leike
gizonak dun balorea,
eta arantza biurtutzen da
aurretikan zan lorea;
iru urte burrukan igaro
baiña zer zan ondorea?
Gerra txarra gendula baiño
ura ez gendun ohea!

8.- Gerrak irabaztun gutxi dute
geienak dira galduan,
da orrelako adibideak
nun nai dauzkagu munduan;
gose ederra edukiarren
jatekorik ez genduan,
azido uriko ta koresterol
ezagun etziran orduan.

9.- Neurritikan pasatakoan
orduan daña geiegi,
zorionetik ez degu noski
uste ainbeste alderdi;
gai oni buruz esan nezazke
konta ezin ainbat egi,
gaur gizenegi gabiltza asko
ordun berriz argalegi.

10.- Askok diote aurrerapenak
ugaltzen dijoazeia,
gure onerako baldin badira
ugaritu ditezela;
baiña ikusten deguna degu
armak indar daukatela.
orain beste batzuek dabilta
lenago Euskadi bezela.

11.- Negargarrizko mundua degu
ain modu andrebesan,
txit bizi beár gendukenak gu
maitasunaren babesan;
auxe oenteatu izan det sarri
nere izate ezerrezan:
Belenen jaio zitzaigun
Ura alperrik jaio ote zan?.

12.- Udara nai genduke baiño
sarritan daukagu negu,
da onerako jartzen bagera
asko egin dezakegu;
kristau izena daramakigu,
badegu Zeiñi erregu,
Jaungoikoa ona omen da
bearra izango degu.

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XXV)

Kolonen azkeneko oñaze edo nekeak ta bere eriotzeko edestitik datorrena.

1.506an Loraillaren 19an Kolon nek Balladolizen egoala eta bere osasunean txarto ikuste zala-ta, azkenai bat idaztea erabagi eban Inojedotar Pedro idazkariakin, bere ondorengolari 1.502ko laugarren bidaldira urten orduko azken nai lez idatzi ebazanak baieztuten, eta bere seme Kolontar Diego erro-jarauntsi⁽¹⁾ lez izendatzeko.

1.506ko Loraillaren 20an Balladolizen il zan Kolontar Kristobal 46 urte eukezala, eta San Franzizkoren eleizan 21eko egunean frantzizkottarren jantziakaz illobiratu zanetik, 400 urte ibili ziran beren ezur-ondarrak alde batetik bestera.

1.512ko urtean Kolontar Kristobalen azurrak, Sevillan dagon Kuebaseko lekaidetxera eroan ebazan Fernando katoliko erregeak, eta erakitzeke agindu eban jaun-illarri eder onen aurre-alboan, berba auek idatzi ebazan: “A Castilla y a León, nuevo mundo dió Colon”.



5. ZATIAN.

Lan guzti onen ondorioa.

Sarrera.

Mundu onetan jaio nintzan oraiñarte danok jaio diran antzera, baiña Eusebio ta Maura aita ama on bitartetik Euskal kabi ederrenetariko baten, Zornotzako erri polit onetan.

Euskalerriko semea izanda, ta bakotzaren jaiouerak berezko izatasun edo orokorrezko baldintz bereizipean jaiota, ez dira bereiztasun orreik txantxetan ibili bear dituguzenak, izaerazko azturan, gai bide orrein balditzapeko etorpidean ulermenduta ezi, azkortu, edo ta azten garelako.

(1) Erro-Jarauntsi edo Erro-Ondarearen oiñorde edo ondorengo = heredero de los Bienes de Mayorazgo.



Ez da edozelako bidea, JAINKOAK ipini euskuna ez, jaioten-garenok baktzaren izaeran nortasunduta bereztuteko, Berak Izadi au gai bereztu ebanean eta gaiaren orokortasuna beti itxura eder onetan agertu dagian, osotzen dauan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenari be, osagarritzko legepean izaerazko berezitasuna emon eutsolako, gure gaitutako-arimak be gai-lege ortan oiñarrituta geratzen dira, eta mundu onetan iñork eta ezerk, ez dauka beste zentzunezko biderik, legezko baldintzape orreitan bizi ezik.

Jainkoak, gaia berezitasun orreikaz bananduta bereztu ebanean, Nortasunaezkoa biurtu eban, berak daukazan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenean be, danak bateratasun edo al-diberetasunezko ta osagarritasunean, erlojugintzazko lan eder baten ipini ebazalako.

Guk, badakigu arimak garela, konturatu bear baiña, gaitutako arimak garela, eta Jainkoak or, ipinten dausku danori, gaiaren baldintzapean.

Zeintzuk ote dira baldintza orreik?:

a) Mundu fisiko onetan jaioten garanean, danak bardiñ jaioten garela munduko erritar⁽¹⁾ lez eta orokorrezko ulermen batera bideratuta osagarritzkoak izan gindezan.

Osagarritasunezko ulermen ori baiña, elburu nagusia da, eta aukera orreitarra eltzeko, nortasunaren bereiztasunezko zor-eskubidearen ordezkartzazko lots bitartez eldu bear gara, ta orren ekanduz kanpoaldetik norkeriz bizi garelako, jarduerazko arrera orreitan agertzen jakuz, ulertu eziñ diran, bata bestearen aurkako odoljariozko nekaldi ta lotsagabeko menpekotasun oneik, danon ulermeneko elburu nagusia mugagabe atzeratuta, alan gagozan bitartean.

b) Gai-Mundu onetan iñor ez dalako ezereen ugazaba⁽²⁾ arduradunezkoa izatea baiño ez jaku geratzen, eta danon eskubide guztiak bardiñak izanda, Jainkoaren Legeak diralako beartuten dabezanak izaerazko egoera orreik, iñork ez dauka baimenik ezereen edo ta iñungo legerik ataratego, “JAINKOAK BERAK” izadi oneri ipini eutsoezan baldintzatic ez ba dira bakantzen.

d) Gai-bereztutako Arimaren bizia izanda, arrazoidunezko bizitza da zalantzarik gabe, ta jaiio ta bizi zaran lekuko izkuntzagaz nortasunduta,

(1) Sozialistaren esanetan eta euren kaizar menpekotasuna ostonduteko = como ciudadanos del Mundo, y es así, pero cada uno con los condicionantes físicos de lugar y lingüísticos que denotan nuestra diferentes peculiaridades, y por tanto distintas maneras democráticas de pensar, para llegar a acuerdos coherentes. (2) Iñor ez dalako ezereen ugazaba = en este mundo nadie es propietario de nada, porque nada nos podemos llevar de este mundo, sino responsable de aquello que me toca administrar, siendo esa la función que nos es permitida.



osotu bear dozuz zure osagarritasunezko ulertzak, norbera izateko, Jainkoari begira orreitan argitzen diralako nire euskal izaera beste izaera guztiekin, BERAK nortasunduta bereiztu euskuzan gauza guztiari lez ulertzeko.

Jainkoak, gaia osotzen dan bereiztutako mukuluekin lez, gizari be bere ugaritasunean bereiztuta, mundu onetan osagarritzkoak izatera eldu gindezan alegintzen dauzku, lege orregaz orokortzen dabezalako nortasun bakotzaren ardurazko eskubideak, ta ez batzuk gure daben antzera, danak naastuta arto-urune opilduta talo bat egiten dan lez Jainkoari eskeintzeko, Bere aurrean bakoitza, dan lez agertu bear garalako.

Danok bardiñak garala esangura dau orrek, bakotzaren nortasunekin elkarpidetu gaitezen.

Baiña, bereizkotasunaren ulertzarako itun, ongunde edo elkarpide bidetik zail edo gaitza da antza, iñoren artean ulermen batera eltzea, eta danak errezenera joanda makil bat artuta, makalenaren buruak apurtzen alegintzen gara, gure arrazoiakin ados egon daitezen, dan guztiok BAITA bidez dakiguzan arrazoiaren gaiñetik.

Oar txiki bat emen.

“Azpalditik, kezka txiki bat euki dot nire barnean, eta goi maillako jakintsueri esan bearrean nago, Aita Santigaz asita nigaz sortu zana ez daiten galdu, eurak be bardiñ egin bear dabela Euskadi edo Euskalerraren seme arduratsuakaz, gure Euskalerra maite onek, bere semeen pil-pilezko ardurapean ezarri dagigun”.

Ni jaio nintzanetik menpeko egoera larri baten egonda, ta askatasun egarriagaz Jainkoari begira egon nazelako beti, negargarritzko arazo onen itur edo sorburuak argitzeko zalea izan naz, eta larritasunezko egarri ori asetzeko, gero nire lagun aundia izango zan Onaindia tar Santi´rengana joanda, onek





goi-maillako ikasbidearen atea zabaldu eustazan mugarik-gabe gauza guzti onekin arduratzeko, eta benetan diñotsuet Euskalerrriak gaur egun, etsai asko daukazela bere izaera demokratikoan irauteko, **EUSKAL SEME-ALABAREN ARDURETAN, GANORA BARIK IBILI GINDEZAN.**

Gaurko menpekotasunezko joko zitalaren sorbide edo iturburua.

325´ean Nizeako eleiz-batzar nagusian artu ziran norkeriaren lapurtzazko erabagi bidetik datoz ondorio txar guzti oneik, Erromatik, iñoz ez diralako aldatu ezertxo be, artu ziran okerrezko erabagi orretatik.

a) Jesusek, Jainko ta bizitzaren gora beran zabaldu ebazan aolkularitz barriak indartsu ta alegiñ ederrenean egonda, katoliko alderdikidetuz, lapurketa aundiena egin jakon orduan ezagutu egiten zan Kristautasunezko munduari, I Konstantinoren guda indarragaz ta eleiztar batzuen laguntzarekin norkeriz, euren esanak siniskai biurtuz gaiñ, jabetu

ziralako, mundu guztien ekandu ederrena izan bear zanagaz.

b) Goian aipatu dogu, zelan Jainkoak gaiezko izadi oneri, bardiñezko indarrean bereiztuta erperatu eutsoezan bere askatasunezko lege-baldintzak, gure bizitzak, bere zentzunezko askatasunera bideratu ginduzen, baiña Kristautasuna, katoliko alderdikidetu ebenean, eurak jabetu ziran gure nortasunaren erantzuteko ardurakaz, ta ordezkartzaren zeregiñak ekanduz kanpo geratu dira beti, bakez bizi gindezan.

d) Norkeriaren lapurkeria agiri-agirian geratzen da, Kolon´en lan onetan ikusten dan lez, orduan ezagutzen ez ziran lur barri ta berton bizitzen ziran jendearen jabetasunak, euren arteko jabetasunean bananduta euki ebezalako ezereen lotsa barik.

Orduko VIIn Alejandro ta ariñauko IVn Sixto ta VIIIn Inozensio Aita Santuak 1.481´eko “Aeterni Regis´eko” buldagaz, Kanariaseko lerrotik bera Portugaleri eta lerrotik goiko aldea gaztelarren ja-



betasunean ezartzen ebezan, eta dan guzti au Kolonek Ameriketako lurraldeak argitan ipini orduko.

Nortzuk ziran oneik, edo ta “Noren Jainko bidetik artuko ote ebezan eskubide orreik?”.

e) Eta ortik aurrerako tresneri, bolbora, ta abar guztietan agertu ziran aurrerakuntzak, danak ipini ziran kaizar-menpeko batzango asmo orren serbitzura.

A ta guzti be, eta naita berezko erriaren eskubideak ararte edozein eratako maltzurkerian erabili, berezko erriaren lege ta nortasunak zapaldu egiten ebazalako ezeren lotsa barik, ezin ebezan erriak legez menperatzea

lortu, Jainkoak bereztasundutako gizari erperatu eutsoezan legeak, danok Baitatuta ekarten doguzelako.

1.789an batzango zale orreik baiña, eurak sasi-jainkotuta sekula ez dabelako onartzen JAINKOAK bereztu ebazan legeak, Frantziko iraultza eginda, Europan guda indarkeriz guztian eta danez gaiñ ugarte-erdi edo peninsula onetan, batzangoaren konstituzio zikin barrien legeak ezarri ebazan, orduko errege ta erritarren agindu gaiñetik, eta or irauten dogu beti borrokan, erri ezberdiñak naastuta ipini ebazalako, gura ez dan bizkidego baten.

Batzangotasunezko kidesunak, munduko Nortasunaren ulermenean lortu bear dira, ez guda bidez beartuta, batzuk urrezko zekorraren jaureskeri edo irudi-gurkerian bizi egiezen.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epailla'ren 21'ean

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

				8	9	3	
6		7	4		5		
			5				
5					2	8	
8	7		1	3	5	9	
9	4						1
			3				
		4		7	2		6
	8	1	6				

3	6	9	7	5	4	6	1	8	2
9	1	6	8	9	7	2	1	6	3
6	2	1	6	9	2	3	1	8	4
5	7	6	9	2	3	1	8	4	5
9	4	2	5	8	6	3	7	1	6
8	7	6	1	2	3	4	5	9	8
5	1	3	9	7	4	6	2	8	7
4	9	8	3	5	2	1	6	7	9
6	3	7	4	1	9	5	8	2	6
1	2	5	7	6	8	9	3	4	5

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



EUSKALERRI NEREA

**Euskalerrri nerea ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz zugandik aparte.
Anaien aurpegian begirada otza,
biotz berotasuna izaten da motza.**

**Arratsaldeak beti dakarren tristura,
neretzat izaten da bakardade ura.
Argitu nairik begiak,
balio al du gure egiak?
Bide bat aukeratzean,
gelditu nai nuke nere lurrean.**

**Euskalerrri nerea
ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz
zugandik aparte.**

Bilbo (Abando ibarra)